

Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia



TRANBIAN
[1931]

Tranbian sarturik bikote gaztea, lurrin exotiko batek bete du giroa, eta moja baten jakin-mina erakarri: Sol-Ventas kalamastro bidaiari bakarra.

Gaztea da. Bekain beltz zabalak ditu. Kokotsean, ebakiondo txiki bat, elutxa graziosoa irudi. Begi handi, biribil, leloekin kanpora begiratzen du lausoki; ez du uzten une batez ere susper dezaten balkoietako zuloek, eraikintzar zuri, gris edo gorriek, haietako pertsiana berde zein horixkek.

Toles ugarietik gonaren azpian ageri zaizkio boten punta zabalak. Artileki beltzezko mahukaburu sakonetan hondoratzen dira eskuak.

Mugiezin. Bikote gaztearen agerpenak baino ez ditu pixka bat lasaitu haren ezpain larriak; bikote gazteak baino ez du lortu haren begi biribil leloetako betazalak inarrotea.

Autoren mutur batean eseri dira, gorputzak gertu-gertu; emakumeak besoa pasatu dio gizonari harenaren azpitik, eta samurtasunez estutu du.

Begiak desbideratu ditu mojak atsekabe-keinu nabarmenez, eta kobratzaileari zuzendu dizkio ostera, zeina zigarro bat biltzen ari baita plataforman, hatz labur traketsekin. Baina berehala finkatu ditu berriro bikote gaztean, elkarri begira ari dira isil-isilik, eta kezka bitxi batek hartu du pixkanaka: irribarre egitera bultzatzen du. Heldu dio hatz biribilekin abituaren toles ugarietako bati, eta indarrez bihurritu du...

Liburuaren zatia

ESTEKA

* https://eu.wikipedia.org/wiki/Luisa_Carn%C3%A9s

* <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20221011/luisa-carnesen-hamahiru-ipuin-euskaratu-ditu-danele-sarriugartek>

* <https://www.diariovasco.com/culturas/libros/gaurkotasunik-galdu-duten-20221011152705-nt.html>


LIBURUTEGIA
TERTULIAK
EUSKARAZ 2023



Luisa Carnés

DOSSIERRA

Hamahiru ipuin



LUISA CARNÉS
Hamahiru ipuin
Itzulpena: Danele Sarriugarte

TERTULIA

2023/05/25
18:30 - 20:00

Nerea Loiola
dinamizatzailea



Luisa Carnés
(Madril, 1905-Mexiko Hiria, 1964)

Luisa Genoveva Carnés Caballero eleberrigile eta kazetari espainiarra, Clarita Montes edo Natalia Valle ezizenez ere ezaguna egin zen.

Langile-familia bateko alaba; Las Letras auzoan jaio zen, Madrilen. Hamaika urterekin kapelategi batean hasi zen lanean, eta 1928an, berriz, bere lehen lana plazaratu zuen, *Peregrinos de Calvario*, narrazio laburren bilduma bat.

1928an *Compañía Ibero-Americana de Publicaciones*en lanean ari zela

ezagutu zuen lehen senarra, Ramón Puyol marrazkilaria (1907-1981), eta seme bat izan zuten.

Te-areto batean lan egin zuen gero, eta han bitzakoei tiraka idatzi zuen *Tea Rooms. Mujeres obreras* (1934) eleberria. Carnés autodidakta zen, eta irakurleen eta kritikaren babesa jaso zuen lehen eleberritari esker.



Clara Campoamorrekin bat egin zuen emakumeen sufragioaren alde eta kausa errepublikarraren defendatzaile aktiboa izan zen.

Gerra zibila hastean, artikulua eta borroka-antzerkia idatzi zituen bere defentsan.

Errepublikak porrot egin eta gero, Mexikora erbesteratu zen Lázaro Cárdenas mexikar presidentearen eskaintzari esker, eta hantxe jarraitu zuen 1964an auto istripu batean hil zen arte.

Dozena bat eleberrri, hirurogei bat ipuin, hirurehun antzerki-lan eta ehunka kronikaren corpus literarioa utzi zuen.

<https://www.donostiakultura.eus/es/agenda/hamahiru-ipuin-es>



BESTE LIBURU BATZUK

- **Natacha**
- **Rosalía**
- **Tea Rooms: mujeres obreras**

Herriaren historia, jendearen istorioak

Asier Urkiza / Berria, 2022-11-13

Euskarara ekarritako Luisa Carnés autore espainiarraren lehenengo liburua da Hamahiru ipuin, idazleak hainbat urtetan zehar idatzitako narrazioen bilduma, 2017an Hoja de Lata argitaletxeak publikatu eta orain Ereinen eskutik euskal literaturara iritsitakoa. Frankisten garaipena dela-eta exiliatu behar izan zuen Mexikora Carnés, zeina PCEko militante eta errepublikazale sutsua baitzen. Han hil zen 1963an, eta ipuinok ere badira bizi-ibilbide horren erakusle, Espainia errepublikarrean, gerra eta frankismo garaian zein 60ko hamarkadako Mexiko eta Amerikako Estatu Batuetan girotuta daudenez gero.

Gizarte errealitatearekin estuki lotutako kontakizunak dira guztiak, baina gertakari handiei ez ezik, eguneroko gorabeheri ere erreparatzen diete ipuinek. Areago, balirudike Carnés horrek axola diola gehien, bien arteko sinbiosiak, gertaera handiek, gizartearen aldakuntzek norbanakoengan dituzten ondorioek, alegia. Hori horrela, jende apalaren bizitzetara zuzentzen du begirada idazleak, Historiaren baitako istorio txikiak, eguneroko xumera. Horixe egiten du gerra aurreko Madrilgo bizimodu urbanoa marrazten duten Tranbian, Bikiak eta Emakume itsusia narrazioetan. Errutinan itotako ametsak eta eguneroko triskantza isilak azaleratzen dira horrelakoetan. Carnés abila da deskribapenetan, gai da objektu domestiko ezdeusenen bidez pertsonaien egonezina adierazteko edota pertsonaien karakterizazio bizi eta sinesgarriak bizpahiru pintzelkadatan emateko. Noizbehinka kutsu poetikoa ere eranstean die horiei, sinesgarritasuna eta errutina airea kaltetzeraino batzuetan. Gerra ardatz duten kontakizunak gordinagoak dira, hala emakume preso errepublikazaleak protagonistatzat dituen Salataria nola iheslarien barku bidezko ihesa kontatzen duen Iparroratzik gabe. Aipatzekoa da azken horretan amatasuna nola jorratzen duen Carnés, aski modu kritikoa, baina era berean harengan indar gizatiarra ikusiz, Ama ereilearen uena saiakera itxurako testuan antzeman daitekeen bezala.

Deskribapen joriak eta gerraosteko Espainia frankistaren estampak eskaintzen ditu idazleak preso politiko baten askatzeaz diharduen Etxean narrazioan. Mexikon girotutako kontakizunak —Mulatoa eta Familiako albuma— aurrekoak baino indargabeagoak iruditu zaizkit, nahiz eta bigarrenaren asmo jostari eta umoretsua atsegina den. Halaber, AEBetan kokatutako Smith jaun andreak izenekoari behartuegia iritzi diot, maitasun harremanaren hasiera tentuz eta xehetasunei adi idatzita badago ere. Carnés kamera itxurako ikuspuntua darabilenean du indarririk handiena, iruzkin sotilek doi apaindua, Akelarre kontakizunean bezala, zeina kanpo fokalizazio eraginkorarekin zinema batean Elvisen pelikula berria ikusteko sortutako algaraz aritzen baita. Beste testu batzuetan igarritako asmo ironikoa erakusten du autoreak Atezaina-n, klase-erdiaren otzantasuna agerian utziz. Esanak esan, luxu handia da Carnés euskaraz gozatu ahal izatea, irits dakizkion irakurleari Historiaren barneko istorioak.

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8672>